



NON GAUDE

IKASTOLEN
BATZARRA



ikastolenelkartea



¹ Nondik gatozen aztertuta, non gauden edo noraino iritsi garen aztertzeraz gonbidatu nahi zaituztegu hurrengo orrialdeotan. Barrura begira bezala, kanpora begira ere arituko gara, zertan eragin dugun ikustea bezain garrantzitsua baita zerk eragin dugun ikustea ere. Nora joan nahi dugun beste dokumentu batean jorratuko dugun arren, honetan ere aipatzen ditugu etorkizunean erantzun beharko diegun erronka batzuk.

² Azken bi mendeetan, Industria iraultza abiatu zenetik, guk orain ezagutzen dugun bizimodu berria hedatuz joan da. Bizimodu horrek irauli egin du lehendanik genuen ingurumen naturalarekiko harremana, bidenabar gure ongizatea ere ikaragarri hobetuz. XX. mendetik XXI. mendera, gainera, kontsumoa are gehiago indartu da sistema kapitalistak bultzatuta, eta kasik jendarte guztietara zabaldu da. Krisia, ekologiko, ekonomiko eta soziala da aldi berean, eta gure jendartearen egokitzera behartuko du, eta jendartearekin batera horren baitako erakundeak. Ikastolak ere ez gara, bistan da, aldatu behar horretatik kanpo geratuko.

³ Egungo egoeraren diagnostikoa egiteko, Ikastolen mugimenduaren antolamenduari eta funtzionamenduari dagozkien lau atal daude. Hezkuntza-proiektuarekin zuzenean lotutako beste hiru eta hezkuntza sektoreari dagokion bat. Azken hitz gisa testuinguru sozioekonomikoari buruz zenbait zertzelada jaso ditugu, ikuspegi globaletik tokikora doazenak.

1. IKASTOLA EREDUA
2. IKASTOLEN ELKARTEA
3. LURRALDE TASUNA
4. IKASTOLEN IRISMENA
5. PERTSONAK ERDIGUNEAN
6. HEZKUNTZA-PROIEKTUA
7. EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA
8. HEZKUNTZA SEKTOREA
9. GIBEL SOLASA: TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA



1. IKASTOLA EREDUA

- ⁴ Ikastola-Eredua da daukagun indargune garrantzitsuena. Gainerako sareetatik bereizten gaitu, eta gure izateko arrazoari erantzuten dio. Identitate propioa ematen digu Ikastoloi eta Ikastolen mugimenduari. Talde egiten gaitu, eta besteengandik bereizten gaituen modu berean kohesionatzen gaitu ikastolok. Auto-eraketan, lankidetzan, elkartasunean eta herrian errotzean ditu bere oinarriak, eta horrek balio erantsia ematen dio Ikastola taldeari.
- ⁵ Ikastolok publikotasun eredu ezberdin bat proposatzen dugu, eta hura hedatzen eta txertatzen ahaleginean jarraitu behar dugu. Publikotasunaren kontzeptuaren ulkerera hertsiaeren aurrean, ikastola-eredua gure aldeko faktore garrantzitsua izan daiteke garapen osoa eta homogenea baldin badauka.
- ⁶ Kolektiboaren indarra da gurea, Ikastola bakoitzaren baitan (ikasleak, familiak eta langileak) eta Ikastolon artean. Parte-hartzea da kolektiboaren ezaugarri nagusia eta gakoa, eta horretan indarrak biderkatu behar ditugu, jendarte gero eta indibidualistago batean komunitatean oinarritutako gizarte eredu proposatzen jarraitu behar dugu, gizarte eredu hau hezkuntzatik eraldatu dezakegula aldarrikatu behar dugu.
- ⁷ Batzen dugun indarra Ikastola bakoitzaren autonomian eta taldearen koherentzian oinarritzen da eta koordinazioa momentu oro, egoera guztietan (administrazioarekin harremanak, matrikulazio-beharrak, behar ekonomikoak...), mantentzea izan behar dugu xede, eta gure artean izan daitezkeen desorekak leuntzea.
- ⁸ Sare bereiztua osatzeak autonomiarako gaitasun handia ematen digu eta hori gure indargune handia da. Horregatik, legeak eta administrazioetatik datozen arauak bete-zearen eta autonomia maila altuari eustearen arteko oreka bilatu behar dugu, hurrengo urteetan gure eredu mantentzeko ezinbestekoa dugun autonomia arriskuan jarri gabe. Ditugun hiru egitura administratibo ezberdinetan daukagun egoera sozio-politiko oso ezberdina da, eta horrek eremu administratibo bakoitzean modu ezberdinetan aritzera eramaten gaituen arren, gure erronkak izan behar du, errealitate hori aintzat hartuta, mugimendu kohesionatua eta ikastola ereduaren inguruan batua eraikitzea.
- ⁹ Ikastolok jendartea aldatu nahi dugu eta gure ereduak horretarako balio behar du. Horrek etengabeko gaurkotzea eskatzen du. Jendartea gero eta likidoagoa den honetan, eta kontuan hartuta aldaketak abiadura bizian gertatzen ari direla, Ikastola-eredua eguneratu beharra ere badauka gure mugimenduak. Sorrerako eta izateko arrazoari erantzuten dioten baloreak indartu eta izaera hori berretsiko duten balore eguneratuak behar ditu Ikastolen mugimenduak. Era berean, gaudenok zaindu eta orokortu egin behar dugu Ikastola Eredua eta datozenei gure ereduaren murgiltzeko aukera eskaini behar diegu eta bide horretan akonpainatu, benetako murgiltzea gauzatu dadin. Ikastolaren aldeko hautua egiteak norabide zehatz batean lan egitea dakar, eta gure komunitatea osatzen dugun langile, familia eta ikasleei konpromiso handia eskatzen die. Hautuarekin batera, Ikastola Eredua transmisioa ziurtatu behar dugu, belaunaldi berriei gure ereduaren oinarriak eta garrantzia helarazi behar diegu. Gizarteak ikastolekiko duen pertzepzioa ere ezagutu beharko genuke, neurtu, benetan gure proiektua nola atzematen den jakiteko.
- ¹⁰ Ikastolen eta ikastola mugimenduaren indargune diren hainbat ezaugarri ere esleitzen zaizkigu. Horiei erreferentzia eginez, euskararen eta euskal kulturaren transmisioa ikastolen indargune bezala identifikatzen dira bai eta emaitza akademiko onak izatea eta nortasunari eta lurraldetasunari lotuta doazen ezaugarri ideologikoagoak direnak ere. Bestalde, ikastolen proiektua segregatzailea eta elitista denaren ezaugarria esleitzeko saiakerak ere egon dira, eta, hein batean, lortu dute etiketa hori jartzea. Orokorrean, adierazi behar dugu euskal gizarteak erreferentzialtasun bat aitortzen digula eta horren erakusgai da ikastolak dauden herrietan eta auzoetan ditugun matrikulazio datuak eta ehunekoak.



2. IKASTOLEN ELKARTEA

¹¹ Europar kooperatiban bazkidedutako 114 ikastola ditu Ikastolen Elkarateak. Egitura sozietario bakarra sortzea urrats kualitatiboa izan da ikastola eredu indartzeko eta kudeaketa eraginkortzeko. **Europar kooperatibaren baitan egituratzeak ikastolen arteko gerturatzea ekarri du**, eta inoizko elkar ezagutza handiena dago ikastolen artean. Lankidetzan hainbat proiektu egiten dira, eta zer hobetu badagoen arren, ikastolen taldearen lorpen azpimarragarria da. Beraz, zalantzarik gabe baieztatu genezake orain urte batzuk egindako egituratze juridikoaren urratsa aurrerapauso estrategikoa izan dela. Dena den, partekatzen diren lan ildoak ez dira asko, eta aurrerantzean hauek elkarrekin pentsatzeak lankidetzaren harremanak indartzea eragingo du.

¹² Ikastolen Elkaratearekiko identifikazio edo atxikimendua ikastola guztiek dute asko edo gutxi. Lotura hau ez da berdina, ordea, ikastola edo lurraldearen arabera. Alde batetik, NIE eta Seaska dira, hurrenez-hurren, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko ikastolentzat erreferente, eta Ikastolen Elkaratea EAeko ikastolentzat. Ikastolen Elkarateko lan ildo nagusiak EAEn kokatzen dira nahiz eta ikasmaterialgintza arloan Nafarroako Curricula ere aintzat hartzen den. Egiturako langileen gehiengo handi bat arabarra, bizkaitarra edota, bereziki, gipuzkoarra izateak ere eragina izan dezake horretan. Ezaugarri honek asko baldintzatzen ditu elkaratearen ikuskera eta, horren ondorioz, lan ildoak.

¹³ Lurralde bakoitzak bere egin dituen eskumenen banaketa da beste arrazoi bat. Ikastolen Elkaratearen sorreran Nafarroak eta Seaskak beren eskumenekoak izango ziren esparruak aldarrikatu zituzten. Eskumenen banaketa horri esker hobeto erantzuten zaie lurralde horietako ikastolek dituzten hainbat beharrei, gertuko ezagutza baliatuz. Zailtasun bat sortzen du, ordea, Euskal Herriko ikuspegiarekin lan ildoak finkatzeko.

¹⁴ **Ikastolen Elkaratea Euskal Herriko eragile sozial garrantzitsua da** gaur egun, hezkuntza esparruan. Hezkuntzarekin lotutako gai estrategikoetan aintzat hartzen da Ikastolen Elkaratearen iritzia, eta bideratzen diren hezkuntza-politiketan eragina du Ikastolen Elkaratearen iritzia. Eragile sozial moduan taldeak duen indarra lurraldez lurralde ezberdina da, ikastolen presentzia lurraldeetan aldatu egiten delako. Egitura bakoitzak dituen baliabideetan dauden ezberdintasunengatik ere gertatzen da hau. Izan ere NIE eta Seaskako egiturek dituzten baliabideak, bereziki NIEk dituenak, oso apalak dira, eta, ondorioz, eguneroko kudeaketan erabiltzen dira baliabide hauek nagusiki. NIEren kasuan, egitura bera mantentzea ere bada erronka bat gaur egun, eta kudeaketaren parte bat egiturari utsiko dioten baliabideak bilatzera dedikatzen da.

¹⁵ Hainbat dira Ikastolen Elkarateak eskaintzen dituen zerbitzuak. Hauek garrantzi handia dute zentzu bikoitzean: elkaratearen bideragarritasuna lortzeko eta ikastola ereduaren iparra finkatzeko. Zerbitzu edo jarduera hauek, gainera, kasu batzuetan badute bere lurraldeko bertsio propioa ere. Hau da, Ikastolen Elkarateko egitura orokorrak eskaintzen dituen arren, kasu batzuetan NIEk eta Seaskak ere eskaintzen dituzte.

¹⁶ **Honako hauek dira elkarateak eskaintzen dituen zerbitzuak, besteak beste:** ikasmaterialen sorkuntza, prestakuntza, aholkularitza, digitalizazioa, hizkuntza proiektuak, aisialdi eskaintza...



17 Ordezkaritza eta negoziazioa hainbat gaitan: Goian aipatu diren zerbitzuez gain, Ikastolen Elkarteak ikastolak jendartean ordezkatzeko funtzioa ere betetzen du. Administrazio ezberdinen aurrean ikastolen interesak defendatzen ditu, eta hauen etorkizunerako giltzarri diren baliabideak negoziatzen.

18 Ordezkaritza hau hainbat arlotan bideratzen da:

- Plangintza eta kontzertazio moduluetan, hezkuntza gaiak, hezkuntza legea,..
- Lan harremanetan, Hego Euskal Herrian, ikastolek itunpeko gainontzeko ikastetxetatik desberdinak diren lan hitzarmen propioak baitituzte.
- Gizartearen aurrean ikastolen iritzia agertuz prentsaurrekoak, iritzi artikuluak..,

19 Zeregin hau lurraldeen arabera ezberdin kudeatzen da, bereziki baliabide ekonomikoen negoziatioari dagokionez. Seaskak eta NIEk kudeatzen dituzte lurralde horietako ikastolen baliabideak dagokien erakunde publikoen aurrean. Ezin daiteke ukatu gai garrantzitsua dela oso, izan ere, ikastolen bideragarritasuna bermatzeko ezinbestekoa baita administrazioaren finantzazioa.

20 Euskararen eta euskal kulturaren zabalkundearen erreferentziako eragilea da Ikastolen Elkarteak, eta sarean lan egiten du, aliatu diren gainerako gizarte eragileekin. Aliantza hauek garrantzi handia dute Ikastolen Elkartearen, egiten duguna ezagutzera emateko aukera ematen digutelako eta, lankidetzaren harreman hauei esker, proiektu berri asko jarri direlako martxan.

21 Komunikazio eta matrikulazio kanpainak: Ikastola markaren erabilera egokia sustatzen duen komunikazio kanpaina diseinatzen du elkarteak, eta baliabideak eskaintzen zaizkie ikastolei kanpaina aurrera eramateko. Kanpaina ezberdinak egiten dira etapa ezberdinetarako (Derrigorrezko Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa). Seaskako ikastoletan ez da komunikazio plan hau asko erabiltzen.

22 Hezkuntza sisteman ikastolen aldeko hautua egin duten familien portzentajea azken urteetan mantendu egin da. Jaiotze tasaren jaitsierak, ordea, eragin zuzena izango du ikastolen matrikulazioan. Gai honi heltzeko, beraz, lan ildo bat ezarri beharko dela aurreikus daiteke.

23 Elkartasun kuxaren bidez, aurrera egiteko taldearen laguntza behar duten ikastolak sustengatzen dira. Inbertsio berriak ere finantzatzen dira, ikastola taldearentzako estrategikoak direnak. Elkartasun Kuxaren estatutuek jasotzen dutenari erreparatuz gero, egun ikastola berriak edo martxan dauden ikastoletako proiektu berriak sortzea da laguntzen helburua.

24 Ikastolen jaiak ere elkartearen parte dira. Ikastola ereduaren sozializazioarako zein baliabide ekonomikoak lortzeko tresna dira jaiak. Jai ereduak gaurkotzea izango da erronka datozen urteetan.

25 Hezkuntza instituzio eta erakunde ezberdinek hainbatetan aitortu digute ikastolen lidergo pedagogikoa. Euskalgintzak eta hezkuntza komunitateak ikastolei eta Ikastolen Elkarteari egiten dieten aitortzaren erakusle dira haietako askorekin ditugun aliantzak. Haiekin lan ildo komunak izateaz gain, ikastolek eta Ikastolen Elkarteak elkarlanerako ematen dituzten ikerketarako aukerak eta antolaketa, kalitate eta eraginkortasun bermeek erakartzen dituzte guregan. Aitortza horietako gehienak, dena den, pribatuan eginikoak dira, ez dira gizarteratu. Gizartean, ostera, eskola publikoaren aldeko mezuek eta mugimenduek oihartzun handia izan dute azken aldian, eta horrek lausotu egin du ikastolen lidergo pedagogikoaren isla. Gizarteko eztabaidak publikotasun eredu propioaren aldeko diskurtsoa eraikitzen bultzatu gaitu, eta horrekin batera, familia berriek ikastolaren aldeko hautua egin dezaten bestelako diskurtso eta baliabide batzuk behar izatera eramanez gaitu: hezkuntza proiektu sendoak eraikitzeko beharra, beste sareetako ikastetxeen proiektuetatik ezberdintzen den proiektu propioa eraikitzeko beharra eta beste behar batzuk azaleratu dira.



3. LURRALDE TASUNA

²⁶ 60. hamarkadan, garaiko mugimendu politiko eta intelektualaren fruitua izan ziren Euskal Herri osoan irekitzen hasi ziren ikastolak. Jaiotza horiek guztiak hutsune bati emaniko erantzunak izan ziren. Herri bezala bide propio bati ekiteko hautua.

²⁷ Hizkuntza, Historia, kultura... luzeko herri bat da gurea. Naziotasuna ukatua duen herria da Euskal Herria. Horrexegatik, bide propioari ekiteko erabakian, zutabe garrantziko bat izan zen naziotasuna ikastolen mugimenduarentzat.

²⁸ Herri proiektua da gurea. Euskal Herri guztian eta euskal herritar guzientzat. Mugimendu nazional bat da gurea, hezkuntza proiektu nazional bakarra. Eta, tamalez, oztopoz beteriko bide sortzailea izaten jarraitzen du gureak.

²⁹ Bi estatutan eta hiru errealitate administratibotan banatuak gaituzte, eta egoera horrek errealitate desberdinak bizitzera eraman du ikastolen mugimendua. Lehentasunak identifikatzeko momentuan, errealitate desberdinetatik abiatzen gara, erritmo desberdinekin lan egiten dugu eta lurraldeko egitasmoak hartzen dute, maiz, lehentasuna. Euskal Herri osorako materialen sorkuntza ikuspegi mugatuarekin egin izan da. Esan dezakegu, zailtasunak izan ditugula ikuspegi nazionalako proiektuak gauzatzeko; euskal kurrikulumaren garapena, materialgintza, aisialdia, digitalizazioa...

³⁰ Bestalde, garaia aldatu egin dira, eta gizarte globalizatuago batetan bizi gara gaur egun. Teknologia-ohitura berriek bultzaturik, kanpotik datozen hizkuntza-kultura-aisialdia kontsumitzen dute belaunaldi berriek. Dena homogeneizatuago bilakatzen ari da aniztasun nahiaren kalterako. Eta naziogintza bezalako kontzeptuek protagonismoa galdu dute beste kontzeptu batzuen (ekologismoa, digitalizazioa...) aurrean.

³¹ Ikastola mugimenduaren praktikak herri egiten gaitu, batzen gaitu eta gure praktikarekin, herritarrak ahalduz gain, herri eraikuntzan gure ekarpena egiten dugu. Euskaran ardaturik, amesten dugun Euskal Herria egia bilakatzen saiatzen gara, eta ekimen konkretuek ematen diote ikusgarritasuna gure proiektuari. Adibidez, Elkartasun Kutxak, Zuzendarien Mintegi Nazionalak, ikerketa komunek...

³² Azken hamarkadan harturiko erabakiek gure sorrerako printzipioekin lotzen gaituzte. Ikastolak sartzeko ahalegin eta ekarpenek ikastolen Elkartearen sorrera ekarri zuten. Eta ikastola guztiak europar kooperatiba batean elkartzeak, gure herri proiektuari gorputza emateaz gain, bidean aitzina egiteko baliabideak eman dizkigu.



4. IKASTOLEN IRISMENA

³³ “Ikastola Herri Eskola” zioten 1970.eko hamarraldian, Ipar Euskal Herrian tokiko hautetsi antieuskaldunen parean eta Estatuaren ukoaren aurrean, Seaskako ikastolek antolatutako manifestaldietan. Azken urteotan Ipar Euskal Herrian lelo hori berrindartu bada ere (kasik urtero ikastola berri bat irekitzen baita Lapurdi, Nafarroa Behere edo Zuberoan, ikasle kopuruak nabarmenki igoz), Hego Euskal Herrian ez da apenas ikastola berririk ireki, eta ikasle kopurua nahiko egonkorra da. Azkeneko ikastola irekierak Bilboko Harrobia eta Hernaniko Aratz ikastola izan badira ere, tartean Etxebarriko ikastolaren ezina ere bizi izan dugu azken hamarkadan. Nafarroan, aldiz, badira hiru hamarkada ez dela ikastola berririk sortu. Tartean, San Adriango ikastola ere itxi behar izan zen. Azpimarratu beharra dago ikastola berriak irekitzeko dauden baldintzak eta aukerak oso ezberdinak direla lurraldearen baitan: ipar Euskal Herrian ikastola berriak zabaltzea ohikoa da, horretarako baldintzak ematen direlako, hegoaldean aldiz, muga administratiboek bide hori jorratzeko ezintasuna dakarte.

³⁴ Bistan da, Ipar Euskal Herrian ikastolak dira murgiltze ereduan irakasten duten bakarrak, beraz garapen potentzial handiena duten tokia da. Baina estaldurarik ez dugun hainbat gune dugu 7 herrialdeetan, eta gune horiek identifikatu eta eskaintza nola zabaldu aztertzea dugu. Ikastola berriak edo sail berriak (Lanbide Heziketan) irekitzeak ikastolen saretzea eta talde gisa indartzea eragiten duela ezin uka, edozein lurraldetan izanik ere. Hain zuzen ere, besteak beste, Lanbide Heziketaren eta Goi Mailako Lanbide Heziketaren garapenean izan dezake Ikastolen Elkarrekin garapen potentzial handiena, edozein lurraldetan izanik ere.

³⁵ Gisa berean, eta jaiotze tasak behera doazen arren, 0-2 edo haurreskola eskaintza mantentzea (EAE eta Nafarroa) eta hedatzea (Seaska) ezinbestekoa da, erdal familietatik datozen haurrak ahal bezain azkar euskalduntzeko. Ipar Euskal Herrian 0-2 euskaldunaren eskaintza hutsaren hurrengo da, eta heldu diren urteetarako erronka gisa agertzen da.

³⁶ Ikastolak dira, hain zuzen, familia erdaldunetako haurrak euskalduntzeko tresnarik eraginkorrenak. Izan hegoaldean, egoera ekonomiko zaileko atzerritar familiei harrera egiteko, izan Ipar Euskal Herrian, Frantziatik datozen egoera ekonomiko jakin bateko familiei harrera egiteko edo sail elebidunetik etor daitezkeen ikasleei harrera egiteko, plangintza pedagogiko berriak martxan ezarri beharko ditugu, gure eskaintza erakarri bilakatzeko eta familia atzerritarren euskalduntzea lortzeko.

³⁷ Ondotik aipatuko dugun moduan, irakaskuntza doakoa izatea izan behar dugu helburu, eta ikastolek ahalegin berezia egin beharko dute, garraio edo bestelako zerbitzuak egitura publikoek beren gain hartzen ez badituzte, zaugarrirentzako dohai-rik izan daitezten.

³⁸ Euskarazko aisialdiak garatzeak ere berebiziko garrantzia du jendartearen euskalduntzean. Funtsean, ikastolak herriari eragin behar dio, ikastolak euskalduntasuna hedatu behar du herriko bizitzan. Ikastola herrigintza da, eta ezin da ikastolara mugatu.

³⁹ Ikastolen irismenaz ari garela, ezin aipatu gabe utzi ikastolen kanpo proiektzioa. Izan Kontseiluaren baitan edo Euskal Konfederazioaren baitan, ikastolak euskalgintzako eragile nagusietakoak dira Euskal Herri osoan. Eta Euskal Herritik kanpora ere Eskolim sarearen bidez edo Galizia eta Kataluniako esperientziekin trukatur, nazioarte mailako murgiltze eredu aurreratuenak eta eredugarrienak ditugu ikastolak.



5. PERTSONAK ERDIGUNEAN

⁴⁰ Ikastolon hezkuntza eredua pertsona bakoitzaren garapenean zentratutako proposamena izatea dugu jomuga. Honek esan nahi du ikastolon egitekoa pertsona bakoitza bere dimentsio guztietan garatzen laguntzea dela (soziala, kognitiboa, motorra, emozionala, existentziala...). Konpetentzien bidezko hezkuntza eredua planteatzen duten ikasmaterialak pentsatuta eta sortuak izateak pertsonak erdigunean jarri eta pertsonen ezaugarri jakin batzuen zerbitzura egotea ahalbidetzen du. Material hauek, euskal curriculumean oinarrituta daudenez, euskalduntasunean eta gure baloreetan ere sakontzen dute.

⁴¹ Delors txostenak planteatzen dituen lau zutabeetako bitan indar berezia jarri zen duela urte batzuk, **“Pentsatzen ikasi”** eta **“Egiten eta ekiten ikasi”** zutabeetan, alegia. Beste bietan sakontzen jarraitzea da oraindik erronka: **“Norbera izaten ikasi”** eta **“Elkarrekin bizitzen ikasi”**. Azken zutabe honetan, dena den, azpimarragarriak diren urratsak egin dira, besteak beste, lan talde kooperatiboan lanketan edota ebaluazio hezigarriaren ezarpenean.

⁴² Azpimarratzekoa da azken urteetan ikastoletako komunitatearen parte-hartzearekin ikasleen irteera profila definitzeko egin diren lanketa teoriko eta praktikoak, eta hortik pertsona eredua definitzeko egindako jauzia. Pertsona eredutik eta haren bost bereizgarrietatik (barne sendotasuna duena, euskalduna, eraldatzailea, erabakitzailea, ekintzailea eta kooperatiboa) abiatuta definitu dugu eta liburu batean argitaratu dugu Ikastolen Hezkuntza Marko Orokorra, eta horrek ipar argi bat markatzen digu.

⁴³ Prestakuntza gakoa da, lehentasunezkoa. Hezitzaileak gara eta horrek ikuspegi integral batetik formatu eta jardutea eskatzen digu. Pertsona eremuan jasotzen direnak dira gure erreferente eta horiek hezkuntza ildo zehatzen bitartez gauzatzea da bilatzen duguna. Irakaskuntzarako konpetentzia edota ezagutza teknikoak, osasun fisiko zein mentalaren zaintza, euskararekiko eta bere kulturarekiko ezagutza eta konpromisoa eta abar dira kontrolatu beharrekoak. Horretarako lankidetzan eraiki behar dugu ebaluaziorako kultura, bai irakasleen egitekoari dagokionez, bai ikasleen jarraipenari dagokionean edota kanpo ebaluazioarekiko. Ebaluazio prozesu hezitzaileak behar ditugu, elkarrengandik eta elkarrekin ikasiz eta norbanako hezkuntzaren zein hobekuntza kolektiboaren zerbitzura jarritz.



6. HEZKUNTZA-PROIEKTUA



⁴⁴ Atal honen balorazio gogoeta egiteko, lehenik arrano perspektiba hartu eta hezkuntza proiektu nazionalean jarri behar dugu arreta. 3 administrazio ezberdin, bi hezkuntza lege ezberdin (eta horien baitako curriculum dekretu ezberdin), askotariko izaera eta ikuspegiak... dira gure taldea mugitzen den testuinguruaren ezaugarriak. Aitortu beharra dago Euskal Herria menperatzen duten bi estatuetakoko hezkuntza legeek eta hezkuntza ulertzeko moduek erabat baldintzatu dutela atal honen garapena eta egungo egoera horren guztiaren isla dela. Konpetentzietan oinarritutako ikas-irakaskuntza, ikasmaterialgintza, digitalizazioa, eduki kurrikularrak, kanpo ebaluazioa eta abar dira mahai gainean jarri beharreko gaiak.

⁴⁵ Seaskaren hezkuntza proiektuak markatzen du Iparraldeko ikastolen ardatza. Irakasleen hasierako prestakuntzan arreta berezia jartzen da, ikastolen ezaugarri, balore, misio eta ikuspegi pedagogikoa gako dituen prestakuntza plan baten bidez, eta etengabeko aholkularitza eta gidaritza dira ondorengo prestakuntzaren oinarri nagusiak. Beste erakunde batzuekin elkarlanean ekoitzitako baliabide didaktikoak ere lagungarri izan dira batasun didaktiko-metodologikoaren ikuspuntutik.

⁴⁶ Hego Euskal Herrian, ikastolen hezkuntza proiektuak bi zutabe izan ditu: Euskal Curriculumean oinarritutako ikasmaterialgintza eta aholkularitza/prestakuntza. **EKI DBH, EKI LH, KIMU** proiektuak eta **KUKU** emozio programa izan dira berrikuntza eta ikuspegi pedagogikoa bateratzeko ezinbesteko baliabideak. Euskal Curriculuma gelaraino eramateko, berrikuntzan urratsak egiteko eta jardun didaktikoa bateratzeko ezinbesteko tresna izan da ikasmaterialgintza. Guzti honen bidez, EAE eta Nafarroako ikastolek lidergo bat, erreferentzialtasun bat, aitortzen diote Ikastolen Elkarteari, nahiz eta azken urtetan diluitzen joan den. Prestakuntza atala guztiz erlazionatuta egon da ikasmaterialgintzaren eskaintzarekin; sortu ziren beharrei erantzuna emateko saio diziplinarretatik hasi, eta ikuspegi zabalagoko mintegietaraino.

⁴⁷ Horiez gain, badira bide honetan aipatzeko beste gako batzuk ere; Haur Hezkuntzako hlzan markoa, Lanbide Heziketan eta Batxilergoan erronketan oinarritutako ikaskuntza metodologiak. Momentu honetan, **konpetentzietan oinarritutako hezkuntza eredu aurrera eramateko ikasmaterialak sortuta ditugu hasi Haur Hezkuntzatik eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaierara arte**. Guzti honen garapenerako proposamen koherente bat egiteko ardura, indarra eta intentzioa jarri duten bakarrak izan gara. Ez da erraza izan, edukien lanketatik konpetentzien lanketara jauzia ematea. Oraindik ere badugu bidea egin beharra eta ekiten jarraitzeko, besteak beste, ebaluazioaren gaineko mintegiekin aritu gara.

⁴⁸ Ikasmaterialgintza aipatuta, ezinbestean **Ikaselkar Hezkuntza Argitaletxeari** aipua egin behar diogu. Ikastolen Elkartearen eta Elkar argitaletxearen arteko lankidetzarako sortutako erakundea da Ikaselkar. Aurretik, ikasmaterialgintza alorrean egiten genuen lankidetzari marko berri bat eman eta elkarlanean sakontzeko aukera zabaldu dugu Ikaselkarren bitartez eta egin duguna egin ahal izateko ezinbesteko aliantza estrategikoa izan da. Bi erakundeak batzen gaituzten baloreak eta misioa garatzeko, eraginkortasuna irabazteko eta lankidetzan sakontzeko helburuarekin abiatu zen Ikaselkar proiektua. Dagoeneko 13 urteko ibilbidea duen egitasmoa da.



Berrikuntza, hobekuntza eta eraldaketa pedagogikoa izan dira azken hamar-kadako lan garrantzitsua. Ikastolen Elkarreak Escalae institutuarekin elkarlanean hasi, eta HPI Hobekuntza Pedagogiko Iraunkorra izeneko prozesua diseinatu zuen. Hainbat ikastolatan (24) abiatu zen prozesua izan zen. Prozesu honetatik hainbat ikasketa atera dugu, eta, egun, hainbat ikastolatan egunerokotasunean txertatuta dago jarduteko modu hau. Esan beharra dago egitasmo honek, arrazoi ezberdinak medio, ez zuela ikastoletan nahiko genukeen ezarpen eta iraunkortasuna lortu. Bestalde, beste aholkularitza prozesu batzuen aldeko hautua egin duten ikastolak ere badira, prozesu ezberdinak zabaldu dituztenak. Honetan ere, kasu batzuetan, elkarrekin joateko pausoak ematen ari gara.

Honenbestez, hezkuntza proiektu bateratu batek batzen dituen atal ezberdinei erreparatuz, ondorioztatu daiteke ez daukagula Euskal Herriko ikastola guztientzako hezkuntza proiektu bateratu bat. Hala ere, batzen gaituzten ezaugarri eta baloreak partekatzen ditugu. Ikastola bakoitza ikastolen mugimenduko atal esanguratsua da, eta elkar zaintzan eta elkartasunean sakondu behar badugu ere, sustrai sendoek lotzen gaituztela ere azpimarratu behar da. Bide honetan, esanguratsua izan da azken urteetan egindako lana Euskal Herriko ikastola guztiek partekatzen dugun **pertsona eredia eta Ikastolen Hezkuntza Marko Orokorra** liburuan jaso duguna. Ikastolen hezkuntza proiektua, eta, ondorioz, eguneroko jarduna, pertsona eredian zehaztu diren bereizgarri eta ezaugarrien garapenerako baliabide dira. Pertsona eredian jasotzen den hori, edozein euskal herritarrentzako baliagarri diren balore sistema eta estrategia eta tresna bilduma modura ulertu behar da, eta horien lanketarako ildoen gaineko eztabaida da piztu behar duguna.

Diskurtsoa eratzeko eta Euskal Hezkuntza sistemaren ezaugarriak modu bateratuan ulertu eta plazaratzeko Bihar prozesua eta Endekalogoaren definizioa landu ditugu. Definizio horietan, publiko komunitario atalaren gaineko gogoeta bat plazaratu genuen, ikastolak tokian tokiko erakundeekin elkarlanean jarduten duten erakunde bezala identifikatuz eta herri-auzo mailan daukagun ardura partekatua onartuz. Ikastolak herrira zabalik dauden erakundeak dira, herrigintzan era aktibo eta desinteresatuan parte hartzen duten erakundeak dira eta elkarlan horretan aliatu estrategiko gara. Guzti honek, maila instituzionalean, batetik, eta hezkuntza proiektu mailan, bestetik, hausnartzera eta erabakiak hartzera bultzatu behar gaitu, kontziente baikara eremu honetan hobetzeko eta komunitarioagoak, irekiagoak izateko kultura sortu beharra dugula.



52 Hezkuntza proiektuaren atala borobiltzeko lau dira aipatzeko ditugun ildo garrantzitsuak:

53 • **Jazarpenaren prebentziorako KiVa programa:** gaiarekin sentsibilizatuta gaude ikastolen komunitatean, hori horrela izanik, aitzindariak izan ginen jazarpenaren prebentzio eta esku hartzerako programa bat abian jartzen. Turkuko unibertsitatearekin elkarlanean ekarri eta egokitu genuen KiVa proiektua gure testuingurako baliagarria izan zedin eta ondorio garbiak izan ditu: kasuen gutxitze esanguratsua eman da eta hito komunikatibo garrantzitsua izan da.

54 • **Euskararen ardazturiko eleaniztasuna:** hizkuntz proiektuak garatu dira ikastolotan, horrez gain, lehenik hizkuntzen trataera bateratua landu genuen eta ondoren, hizkuntzen trataera integralaren lanketari ekin diogu. HTIren bitartez, irakasle guztiak ahaldundu nahi ditugu beraien arloa dena delakoa ere hizkuntzarako, euskararekiko, helburuak azaleratu eta lanketa kontzientea egin dezaten.

55 • **Digitalizazioa:** Ildo honek garapen esanguratsua izan du Ikastolen Elkartetik sustatu diren egitasmoetan: batetik, ikasleen konpetentzia digitalaren garapenerako lanketa sekuentziatua integratu da gure ikasmaterialetan, bestetik, irakasleen konpetentzia digitalaren garapenean jarri dugu energia eta denbora dedikazio ugari azken urtean eta bukatzeko, azpiegitura eta bestelako baliabideen inguruan egindako kudeaketa eta ekarpena ezinbestekoak izan dira.

56 Hegoaldean digitalizazioan egindako apustua ezinbestekoa izan da egungo egoera digital zein pedagogikora iristeko. Berrikuntzarako palanka izan da digitalizazioa, ikastolen azpiegitura garatzeko, ikasleen konpetentzia digitala lantzeko eta irakasleak berrikuntza pedagogikoan zein konpetentzia digitalean trebatzeko. Garapen horren oinarrian bi lan-ildo jarri ziren martxan: batetik, ikastolen garapen digitalerako Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (IKT) plana diseinatu eta gauzatzea, eta, bestetik, ikasmaterialetan txertatzea konpetentzia digitalaren lanketa egiteko IKT jarduerak.

57 • **Aisialdi eredu:** Zirimola ikastolen aisialdi taldea abiatu da, Aisiola hezitzaile eskolak ibilbide oparoa egin du (ISOa, hezitzaile eta eskola kopurua...), aisia markoaren idazketa gauzatzen ari gara, hizkuntzaren erabilera sustatzeko estrategien lanketa egin da eta eskaintza berrikusi eta zabaltzeko lana osatu da.



7. EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA

⁵⁸ Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, Euskalgintzaren Kontseiluak 2023ko irailean argitaratutako egoeraren azterketak hala dio: iazko matrikulazio datuen arabera derrigorrezko hezkuntzako ikasleen ia hiru laurden dira D ereduan ikasten dutenak (proportzioak %80 gainditzen du Haur Hezkuntzan). A ereduan ari direnak –euskara ikasgai huts dutenak– %5 inguru dira ikasketa maila guztiak aintzat harturik (Haur Hezkuntzan %3tik behera jaisten da). Orokorrean harturik, esan liteke egun EAEn derrigorrezko mailetan eskolaturiko ikasle ia denek dutela euskararekin harremana, kasu batzuetan gutxienekoa bada ere.

⁵⁹ Derrigorrezko ikasketa ibilbide guztia D ereduan egindako ikasle askok ez dute lortzen bizimoduko arlo guztietan euskaraz eroso aritzeko adinako gaitasuna. 2021eko ISEIren Ebaluazio Diagnostikoaren arabera, LH4n ikasleen %37,8k eta DBH2n %54,4k ez dute elebitasun helburua lortzen. Ebaluazio Diagnostikoarekin batera, EAEn egiten den Arrue Proiektuak ere argi azaltzen du LH 4n hasten direla ikasleak hizkuntza-mudak egiten. Adin tarte honetan erabaki ohi du ikasleak zein hizkuntza erabili norekin eta zein testuingurutan. Era berean, Arrue Proiektuak ere argi azaltzen du ikasle horiek DBH 2ra iristerako, jolas-tokian ari direla, herri-mailan jasota den hizkuntza-erabilera egin ohi dutela; hau da, herri-mailan ohikoa den erabilera-tasarekin bat egiten dutela esparru horretan ere.

⁶⁰ Nafarroako egoera desberdina da oso. Nafarroan 1986tik legez bereizitako hiru eremuetako bakarrean da ofiziala euskara, eta horrek eragin nabarmena du hezkuntzan eskaintzen diren eta egiten diren hizkuntz hautuetan. Iaz derrigorrezko hezkuntzan eskolaratuta zeuden ikasleen %63 G ereduan ari ziren; hau da, euskararik ez zegoen haien ikas programetan. %24 ziren D ereduan ari zirenak eta %13 A ereduan. D ereduak, urteak daramatza %30era hurreratzen den langa hori gainditu ezinik geratuta. Nafarroako ebaluazio diagnostikoko emaitzek eta 2021ean egindako PIRLS nazioarteko ikerketaren emaitzek ere EAEn gertatzen ari denaren pareko egoera islatzen dute.

⁶¹ Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoan, hezkuntza sistemako ibilbidea euskararekin harremanik eduki gabe egingo dute ikasleen kopurura %57koa da; hau da, erdia baino puska bat gehiago. Lehen mailetan euskara irakats-hizkuntza nagusi duten ereduetan ariko direnen ehunekoa are eta apalagoa da: %14,8. Gainera, ehuneko horretatik zati bat baino ez da murgiltzean ariko dena, hots, Seaskako 2.638 ikasleak. Beste 1.157k ere euskara izango dute irakats-hizkuntza zentro publiko zein pribatuetan, baina ikasgelaz kanpoko eskola bizitzan ez dute bermatuta euskara izango dutenik hizkuntza nagusia. Azkenik, eredu elebiduna hautatu dutenak %27,2 inguru dira. Esan bezala, gainerakoek ez dute euskararekin harremanik izango. Egoera are eta okerragoa da bigarren hezkuntzan: ikasleen %21 pasatxo dira –murgiltze eredu, elebiduna zein euskara ikasgai dutenak batuta– ikasgeletan euskara jasoko dutenak.

⁶² Ikastolen Elkartean euskararen indarberritzea dugu ardura nagusi, pertsona ereduan jaso dugun moduan, ikasle euskaldunak (hiztun osoak, identitadedunak eta kultura ezagutu eta bizi dituenak eta eleanitzak) hezten laguntzeko erronka daukagu. Bi helburu horiek lortzeko euskararen eta euskalduntasunean ardaztutako hezkuntza eleantunerako ereduak garatu behar dugu.



⁶³ Bide horretan, 2000. urtean Ikastolen Elkar-teak ordura arte hizkuntzen inguruan sortutako egitasmoak bilduko zituen tresna baten beharra ikusi zuen: Ikastolan barruko eremuetan, hizkuntza guztien tratamenduari koherentzia emango zion tresna, hain justu. Tresna horri **Hizkuntz Proiektua** deitu zitzaion, eta haren markoa garatzeko lanari ekin zion. Marko haren lanketatik eta esperimenez parte hartu zuten ikastolen laguntzarekin gauzatu zen 2009. urtean argitaratu zen **Ikastoletako Hizkuntza Proiektua** liburua.

⁶⁴ Liburu horrek proposatutako gida-lerroak aintzat hartuta, eta Ikastolen Elkar-tearen **Hizkuntza Proiektua** mintegien gidaritzapean, ibilbide luzea egin du ikastola bakoitzak. Eragin-eremu askotarikoak jomuga dituzten esku-hartzeak diseinatzeko eta haien jarraipena egiteko aukera eman digu: eremu formalean, eremu-ez formalean, eta eremu instituzionalean eragiten aritu gara eta horretan dihardugu.

⁶⁵ Iñaki Lurrebaso ikertzaileak argitaratu berri duen tesiaren harira egindako elkarrizketetan aipatzen du "indarberritze arotik" "geldotzearen arora" pasa garela euskararen belaunetara belauneko transmisioan. Aldaketa handiak bizi ditu euskal gizarteak, eta, oro har, agerikoa da gizartean bizi dugun erlaxazio-egoera. Horren adibide dira, zorixarrez, ohikoak bihurtu zaizkigun euskararen kontra hartutako erabakiak (bai Bidasoa ibaiaren alde batean bai bestean), eskolaz kanpoko ekintzetan ingelesaren eskaintzak izan duen gorakada, edota gaztelania hutsez egindako kultur ikuskizun eta ekoizpenek azken urteetan izan duten hazkundea (Kulturaren Euskal Behatokiak egindako azterketan jasoa - EAE).

⁶⁶ Euskararen ezagutzak gora egin du, baina hiztun-tipologia desberdinak azaleratu zaizkigu: jendarteak, oro har, erraztasun handiagoa du trebetasun hartzaileetan (irakurmenean eta entzumenean) trebetasun ekoizleetan baino (mintzamen eta idazmen), eta, azken hauen artean, ahozko gaitasunak egin du behera nabarmen. Horren ildotik, hiztun-tipologia horren isla da gure hezkuntza-komunitatea ere (ikasleak, irakasleak, hezitzaileak, gurasoak eta zuzendaritza-taldeak). VII. Inkesta Soziolinguistikoak 16 urtez azpiko ikasleen lehen hizkuntzari buruz honako datu hauek utzi dizkigu eskura:

	EUSKARA	BIAK	ERDARA
EAE %	18,4	6,5	75,1
NAFARROA %	6,1	3	90,9
IPARRALDEA %	13,3	6	80,7

⁶⁸ Era berean, EAEn egiten den ebaluazio diagnostikoan zehatz ageri zaizkigu egun D ereduan (EAE) ditugun ikasleen hiztun-tipologiak:

- Gaitasunik gabeak (goranzko joera)
- Erdaldun elebakarrak (nabarmen gora egin duen taldea)
- Euskaldun elebakarrak (beheranzko joera)
- Elebidun orekatuak (beheranzko joera)
- Erdal elebidunak (goranzko joera)
- Euskal elebidunak (beheranzko joera)
- Elebidun orekatu goi mailakoak (azkenaldian, goranzko joera)



69 Ikasleen lehenengo hizkuntza zein den kontuan hartuta, eta egun ditugun hiztun-tipologiak aintzat hartuta, ikastoletan egiten ditugun esku-hartzeen gaineko hausnarketa egin beharrean gaude: gure esku-hartzeetan (dela eremu formalean, dela ez-formalean) hizkuntza-helburuei erreparatzeko hizkuntzen trataera integrala lantzen hasita gaude, bigarren edota hirugarren hizkuntza (gutxitua) baita zenbaitentzat guk hezkuntzarako darabilguna. Bide horretan gogoeta egina dugu eta esku hartzerako diseinua ere eginda daukagu EAE eta Nafar ikastolentzako. Hiztun-tipologiekin batera, familia-tipologiak ere aldatzen ari dira. Jaiotze-tasak beheranzko joerari eusten dio, eta ama direnen artean ia heren bat (%30 gutxi gorabehera, EAEko datuetan oinarrituta) atzerritar nazionalitatekoak dira. Ikastoletan, aldiz, familiekin egiten diren esku-hartzeak, oro har, ez ditugu sistematizatuta, nahiz eta esperientzia interesgarriak jasota ditugun. Familia-tipologia zabal horri zuzendutako esku-hartzeak diseinatu beharra dauzkagu, eta familiekin partekatu beharreko mezuak berreraiki beharra ere bai.

70 Baina egoera ez da hizkuntza-tipologiara mugatzen. Jendarteak, oro har, zailtasunak ditu egunerokoan ohiko bihurtu zaigun zenbait egoera soziolinguistikaren betaurrekoak baliatuz behatzeko, edota ikuspegi kritikoz aztertzeke, eta, jendartea diogunean, gurean familiekin, zuzendaritza-taldeen, ikasleekin, irakasleekin eta hezitzaileekin ari gara. Ezinbestekoa zaio hizkuntza gutxitua osatzen duen komunitateari soziolinguistika-mailako ezagutzak izatea, baldin eta ohiko bihurtu zaigun zenbait egoera irauli nahi badugu. Hortaz, hezkuntza komunitateari zuzendutako mezuetan eta prestakuntza-saioetan lehenetsunez jorratu beharreko alderdiak izango dira honako hauek: profesionalen hizkuntza-gaitasunarekin lotutakoak (Leizaur Euskaltegiaren bidez jorrotzen direnak), komunitate osoari zuzendutako hezkuntza soziolinguistikoak barne-biltzen dituenak (soziolinguistikarekin lotutako edukien, jarreraren eta portaeren gainekoak), familiekin zuzendutako esku-hartzeetan euskararen ardatzutako eleaniztasunaren gaineko diskurtsoa zabaltzera eta partekatuzera bideratutakoak.

71 Kultur adierazpenez gozatzeko bideak ere aldatu zaizkigu. Orintsu arte, munduan zehar sortutako kultur ekoizpenak eskuratzeko bideak urriagoak ziren, eta, egun, jendarteak esku-eskura du mundu osoan bogan dauden kultur adierazpenetarako sarbidea. Euskal kulturak ur handi horietan ere eutsi egin behar dio, kultura eta hizkuntza maioritarioen artean bere lekua egin behar du, eta horrek euskal kulturarekiko atxikimendua eta kontzientzia bizi-bizi izatea eskatzen du. Euskarak eta euskal kulturak biziko dituen ikasleak hezteko, ezinbestean egin beharko diegu erreferentzia Euskal Herriaren luze-zabalean erreferente diren sortzaileei, ikertzaileei, artistei eta haiek egindako ekarpenei. Sortzailerik gabe ez dago kulturarik. Gure erreferente kulturalak ezagutza eta kultura, oro har, euskaraz eraiki eta partekatzen dutenak izatea ezinbestekoa da. Hortaz, ezinbestean gogoan izan beharreko mugarrria izan behar da guretzat: ikasleekin erabiltzen ditugun artefaktu didaktikoak diseinatzean, ikas-materialak hautatzean, edota irtenaldiak edota aisia-ekintzak antolatzean, gogoan izan beharreko alderdia da, eta, era berean, hezkuntza komunitate osora zabaltzen ditugun proposamenen oinarrian egon behar duen ezinbesteko baldintza izan behar da.

72 Iñaki Lurrebasoren hitzak ekarriz emango zaio bukaera atal honi: euskara, momentu honetan, hurbilago dago heriotzatik normalkuntzatik baino. Ekin diezaiozun, bada.



8. HEZKUNTZA SEKTOREA

⁷³ Hezkuntzari aipamena egin dioten diagnostiko desberdinek gure hezkuntza sistematik errotik eraldatu behar direla azpimarratu izan dute.

⁷⁴ Gure hezkuntza sistematik erabat lotuta daude Espainia zein Frantziako legediei. Hego Euskal Herrian Ipar Euskal Herrian baino autonomia maila handiagoa dagoela esan daiteke. Hegoaldean Nafar Gobernuak zein Eusko Jaurlaritzak beren hezkuntza lege propioak garatzeko aukera eta autonomia dute, baina mugatua, Estatuko legedian oinarritu behar baitira.

⁷⁵ Nabarmentzekoa da Espainian 1980tik zortzi hezkuntza lege desberdin egon direla indarrean; gobernatzen duen alderdia aldatu den aldiro aldatu baita legea.

⁷⁶ Gure hezkuntza sistematik publiko-pribatu dikotomiaren tranpan sartuta daude, non ikastolen aitortza instituzionala hirugarren sare moduan ezeztatuta dagoen. Publikotasun eredua ulertzeko modu oso hertsia dago gizartean zabaldua; publikotzat administrazioarena dena aitortzen da gehien bat. Publiko-komunitario, herritar-komunitario izaera duten proiektuen garapen desberdinek, berriz, ez dute lortu publikotasun eredu berri baten aldeko aldarria gailentzea. Eztabaida hau batez ere hezkuntzan gertatzen da, beste eremu batzuetako herri ekimenen inguruan ez dago halako eztabaidarik (helduen euskalduntzea, komunikabideak, UEU...).

⁷⁷ 1993ko EAEko Eskola Publikoaren legeak polarizazio egoerak ekarri ditu eta, oro har, aurretik aipatutako publiko-pribatu dikotomiak espazio handia hartu du eztabaidan, erkidegotik haratago Nafarroako zenbait eremutara ere zabaldu dena.

⁷⁸ Bestetik, egun hainbat faktorek bete-betean eragiten dute hezkuntzan: etorri berriek, jaiotze tasaren beherakadak, digitalizazioak, berrikuntza pedagogikoak... Faktore hauek ez dute inpaktu bera izan sare guztietan, baina eragina denetan izaten ari dira.

⁷⁹ Etorri berrien kopuruak markatu du azken hamarkada, eta egoera berri honetara egokitzen ari da hezkuntza, gizartearen aurretik. Segregazio egoera nabarmenak eman dira eta ematen ari dira hainbat ikastetxetan, batez ere administrazioaren peko sarean eta A ereduko ikastetxe erlijiosoetan. Segregazio egoerak arintzeko eta bideratzeko neurriak ezartzen hasi dira, baina baliabideak ez dira modu proportzionalan edo orekatuan eskaini administrazioaren eskutik.

⁸⁰ Testuinguruan ematen ari diren aldaketak (hezkuntza lege berria, migrazio fluxuak, jaiotze tasaren beherakada...) eragina izaten ari dira ikastetxeetan; zenbait ikastetxe itxi egin dira eta badira beste sareetako ikastetxeak ikastolen Elkarteko sarean integartzeko interesa erakutsi dutenak.

⁸¹ Aipagarri ere bada jaiotze tasaren beherakadak hezkuntza sare desberdinen artean matrikulazio garaian sortu duen lehia, batez ere Araba, Bizkai eta Gipuzkoan.

⁸² Jaiotze tasaren beherakadak eragina izango du ikastetxeen antolaketan zein langilegoaren egoeran. Erkidegoan adibidez, ISEI-IVEIk egindako azken azterlan prospektiboaren arabera, ikusten da populazioaren batez besteko adina 4,3 urtez zahartuko dela 2032ra bitartean; eta enplegatuen kopurua % 36,5 murriztuko dela, hau da, egun dauden 32.366 langileetatik 20.538ra 2032an.

⁸³ Gobernu desberdinek neurri bereziak hartu dituzte eta hartuko dituzte egoera hauei aurre egiteko hezkuntzaren alorrean: ratioen jaitsiera, langile plantillari eustea... Beraz, sektorearen berrantolaketa bat etorriko dela jakinik, ikastolen mugimenduak egoera honen aurrean bere estrategia propioa garatu beharko luke.



⁸⁴ Bestetik, digitalizazioaren eta teknologien garapenak inpaktu handia izan du geletan eta ikas-irakaskuntza prozesuan. Ikusteke dago adimen artifizialak nola eragingo duen geletako dinamikan.

⁸⁵ EAEn onartu berri den hezkuntza legeak aldaketak ekarriko ditu ikastetxeetan: hala nola, itundutako ikastetxeetan doakotasunerantz urratsak egiteko prozesua abiatzea, Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren eraketa, segregazioari aurre egiteko neurriak... A, B eta D ereduaren mantentze eta berrikusketarekin argitzeko dago hizkuntzen trataerarekin eta bereziki Euskararekin zer gertatuko den. Aipatu beharra dago hezkuntza eragileon artean hizkuntz ereduak gainditzeko eta murgiltze eredu orokortua ezartzeko adostasuna dagoela; beste eremu batzuetan ez bezala.

⁸⁶ Halere, sareen arteko hainbat desberdintasunei ez zaie irtenbiderik eman. Adibidez, ratioetan desberdintasunak daude, Hegoaldean ez da itunpeko ikastetxeen garraioa finantzatzen, itunpeko ikastetxeei gela berriak zabaltzeko aukerak mugatzen zaizkie...

⁸⁷ Egoera berri hauek denek ekarriko dituzten aldaketak direla eta, langileen lan baldintzen inguruko eztabaida ere zabaldu da hezkuntza sisteman.

⁸⁸ Aipatzekoak dira ikastolek, lurraldearen arabera, langileen lan baldintzak arautu eta negoziatzerakoan dituzten desberdintasun eta oztopoak. Kezkagarria da, halaber, azken aldian irakasleak ikastolen proiektura erakartzeko dugun zailtasuna.



9. GIBEL SOLASA: TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

ERAUZKETA-SISTEMA MASIBOAK ERAGINDAKO KRISI EKO-SOZIALA.

89

Garai gero eta likidoagoan bizi gara, konpromisoa eta komunitatearekiko loturak desegin eta norberekeria hedatzen ari den sasoiari hain zuzen ere. Mundu mailako egoera ezegonkorrak egungo zibilizazioaren krisiaren trazak areagotu besterik ez ditu egin. Krisi energetikoa dela, krisi klimatikoa dela, kolapso ekologikoaren norabidean daramagu gaur gaurkoz ezagutzen dugun mundua. Oinarritzko bizi baldintzetan, oro har, elikadura, etxebizitza ala enplegua izan, Ipar isurialde ekonomikoa eta Hego isurialde ekonomikoen arteko arrakala gero eta nabarmenagoa egiten ari da.

90

Giza-populazioak eta giza-jarduerak etengabe hazten jarraitzen dute, eta honek lortzeko ekologikoa hain da handia 1,6 planeta beharko genituzkeela gure jarduerak mantentzeko. Kutsadurak, eragiten duen planetaren berotzearen eta desertizazioaren ondorioz, milioika pertsona kanporatu ditu euren herrialdeetatik. Gatazka belikoen ondorioetatik haratago, mundu mailako krisi soziala bilakatu da klima-iheslarien hazkunde esponenziala. Planetaren ustiaketa jasangaitza bilakatzen ari zaigu. Baliabide ekologikoen ustiaketa basatiak eragin zuzena du lehengaien urritasunean eta kutsaduran. Eta kutsadurak injustizia soziala ere eragiten du. Injustizia sozialak ez du mundua bizigarriago eta justuagoa egingo eta horrek eragin zuzena du demokraziaren eta justizia sozialaren eremuan, kultura eta hizkuntzaren eremuan duen bezalaxe.

GLOBALIZAZIOAREN ERAGINEZ EUSKARAZ ETA EUSKAL KULTURAN BIZITZEKO AUKERAK ZAILDU EGITEN DIRA. GLOBALIZAZIOAREN PRESIOA BERTAKOEN KALTETAN.

91

Euskaraz gain, ikastoletan hizkuntza gehiago ditugu, baina euskara da guztiok batzen gaituena. Digitalizazioaren garai honetan, euskararen eta euskal kulturaren presentzia lausotzen ari da globalizazioaren ozeano zabalean. Euskarak hizkuntza gutxitua izaten jarraitzen duen heinean, bere normalizaziorako bidean zailtasun gehigarria atxiki zaio, interdependentzia globalarena. Denok ia gauza bera ikusten dugu, informazio ia bera jasotzen dugu. Denok ia bide bera erabiltzen dugu komunikatzeko, ia mundu osoa dagoelako lotuta. Denok ia gauza bera jaten dugu, ia gauza bera kontsumitzen dugu. Herri desberdinen arteko fenomeno ekonomiko, teknologiko, sozial eta kultural honek, herrialde desberdinen arteko komunikazioa gero eta zabalagoan, herrialde horien jendarteak, merkatuak eta kulturak bateratzeko joera du multinazional zehatzen interesen norabidean. Globalizazioaren hizkuntza egun ingelesa da.

JENDARTE GERO ETA INDIBIDUALISTAGOA.

92

Jendartean arrakastaren eta lehiakortasunaren baloreak puri-purian direla, norbanakoen indibidualizazio prozesua azkartu da, oro har. Bizitzaren etengabeko teknologizazioak ere badu eragin nabarmena prozesu honetan. Eskubide eta betebeharrak subjektuak bezero bilakatzen ari dira egungo bizi-eredu kontsumistaren ondorioz. Ordaintzen dugulako gara bezero eta bezeroak apenas du betebeharririk jendartearekiko elkartasunerako. Egongo da beste norbait nire ordean antolatu eta egingo duena. Jendarte aktibo izatetik, ikusle huts izatera garamatzen mundu ikuskera indibidualistagoa gailentzen ari da.



IKASTOLETAKO FAMILIEN GEHIENGOA MAILA SOZIOEKONOMIKO ERTAINEKOA DA. IKASTOLETAN ORDAINDU BEHARREKO KUOTAK ERAGIN EZKORRA DU FAMILIA ASKORENGAN. IKASTOLEN ARTEKO DESBERDINTASUNAK KUOTEN MAILAN.

⁹³ Maila sozioekonomiko ertaineko familiak, lanbide kualifikatuak eta ikasketa maila altuak dituzten familiak erakartzen ditugu ikastoletara. Gurera etortzeko motibazioa oso ezberdina da lekuan leku. Motibazioa izan daiteke proiektuarekiko erabateko atxikimendua dutelako, hezkuntza eskaintzaren kalitatearengatik, euskalduntzea bermatuta dagoela uste dutelako edota, erabat kezkarria eta arbuiagarria dena, beren umeak aniztasun gutxiko gela batean eskolatuko direlako. Bizi garen mendebaldeko errealitate ekonomikoaren isla da, hain zuzen ere, ahalik eta gutxien nahasteko eta ahalik eta antzeko ezaugarri gehien dituzten pertsonekin taldekatzeko joera. Horrela ere aukeratzen gaituzte.

⁹⁴ Gaur gaurkoz ikastolen autonomiarako eta bideragarritasun ekonomikorako ezinbestekoak diren kuotak ez dira, oro har, oztopo izan ikastolen mugimenduak familien babesa jasotzeko. Hala ere, egun oraindik beharrezkoak ditugun kuotek askoren atxikimendu galera eragiten dute ikastolen proiektuarekiko, izan arrazoi ideologikoenengatik, izan arrazoi ekonomikoengatik. Kuotetan ere, tokian tokiko beharren arabera desoreka nabaria dago ikastolen artean, eta familiek egin beharreko ekarpen ekonomikoetan desberdintasun handiak daude.

HEZKIDETZA: EMAKUMEEN KONTRAKO DISKRIMINAZIOA, INDARKERIA ETA ZAPALKETAREN AURKA BORROKATZEKO TRESNA, BAITA IKASTOLETAN ERE.

⁹⁵ Jendarte ereduak lotura zuzena du ikastoletako geletan bizi dugun errealitatearekin. Identitatearen oinarrietako bat den generoaren eraketan, emakume eta gizon kategoriak finkatu ohi dira, bakoitzari sozializazio eta kokapen sozial desberdin eta hierarkizatuak esleituz. Ikasleek etxetik ekarri ohi dituzten genero estereotipo eta jokaera hauek baztertzeko gune izateko abiapuntuan daude ikastolak. Ikastolaren funtzioa, besteak beste, ikaslea etorkizunean konpetentea izateko prestatzea den heinean, hezkidetzaren erronka nagusia da ikasle bakoitza bere bakantasunean eta berezitasunaren arabera ulertzea, sexu-genero sistematik at. Hezkidetzaren ortzi-muga pertsona guztiak parekidetasunean eta diskriminaziorik gabe hezte da, sexu/genero sistemaren araberrako menperatze harremanik ez eraikitze eta, desberdintasunetik, berdintasunean hezteko, jendarrean nagusi den binomismoan banatutako genero estereotipoak alboratuz, eta bakoitzak bere identitatea eraikitze bide anitz eta askotarikoak zilegi eginez. Hezkidetzaren lan-eremua ikastolaren komunitate osora zabaltzen da.

JAIOTZA TASAREN JAITSIERAK SISTEMAN IKASLE GUTXIAGO EGOTEA ERAGINGO DU.

⁹⁶ Gain-eskaintza dago egungo eskola-mapan Hego Euskal Herrian. Jada ez dago horrenbeste ume aukeran dauden ikastetxeetako plaza guztiak betetzeko. Joera demografiko honek ez du erakusten datozen urteetan aldatuko den zantzurik, eta euren bizitokia Euskal Herrira aldatzera behartuta datozenen kopuruak ez du gainbehera hau orekatzen egun, ezta orekatuko ere etorkizunean, nahiz eta kopuru esanguratsua izan. Eskola-maparen eraldaketa sakonaren atarian gaude, beraz, Hego Euskal Herrian.



TOKIKOAREN ALDEKO JARRERA INDARRA HARTZEN ARI DA ALTERNATIBA MODUAN.

⁹⁷ Badago, hala ere, hautu kontziente bat; astiro baina sendo hedatzen ari da, eta interdependentzia globalaren atzaparretatik hein batean aldentu nahian dabil: tokikoaren aldeko jarrera alternatiboa, alegia. Euskara eta euskal kulturaren transmisioa tokiko baloreak diren heinean, eta gure proiektuaren ardatz, bada hor aukera bat ikastolen mugimendua indartzeko. Kontua da aukera hau ez dela soilik gurea, beste hezkuntza espazio batzuetan ere landu daitekeelako etorkizunean.

GARAPEN IRAUNKOR ETA JASANGARRIA BERMATZEKO BIDEAN, IKASTOLETAN GARATZEN ARI GAREN EKIMENAK

⁹⁸ Ez dira gutxi ingurumen-arazoen konponbidean parte hartzeko ezaguera, gaitasuna, jarrera, motibazioa eta konpromisoa garatzeko ikastoletan garatzen ari garen proiektuak, izan Agenda 2030ekin lotutakoak, izan tokiko hornitzaileekin energia berri-ztagarrien erabilerarako instalazioak hedatuz autosufizientziaren norabidean, edota gertuko produktuekin hornitutako jangela osasungarriak sukalde propioa duten ikastoletan. Guzti horiek erakusten dute kezka hor dugula eta aldatzeko gogoia ere bai. Tokian tokian antolatzea zer den dakien komunitatea gara, eta, gainera, horretarako aukerak dituen. Indargune hori ardatz harturik, aukera izango genuke, beraz, denbora gehiago galdu gabe, gure ikastoletako kontsumoa gutxitu eta egokitzeko (energia, janaria, material informatikoa, eraikinak), eta, harago, joanez aukera izango genuke paradigma berri honetara gure gazteak hobeki prestatzeko, jasangarritasunaren kontzeptuak barneraraziz (ikasmaterialetik hasiz eta praktikekin jarraituz) eta, zergatik ez?, Lanbide Heziketako sailak zaharberrituz...

AUZOLANA.

⁹⁹ Historikoki, ikastolen mugimenduaren erregaia izan da auzolana, aurrera egiteko maila pedagogikoan, ekonomikoan zein ludikoan. Egun oraindik indarrean dagoen lan-moldea da ikastolen mugimenduaren baitan. Ikastola bakoitzak bere onurarako abian jartzen duen auzolan txikitik hasi, eta urteroko bost ikastolen jaiek, adibidez, suposatzen duten auzolan erraldoietaraino. Halaber, ahalegin handia exijitzen dio ikastolen mugimenduari, giza baliabide zein baliabide teknikoetan, urtez-urte mailari eusteak. Arestian deskribatu dugun jendarte gero eta indibidualistago horren haizearen kontra goaz askotan.





**NON
GAUDE**
IKASTOLEN
BATZARRA



ikastolenelkartea